

# **BORONDATEZKO LANKIDETZARAKO KONPROMISO IDATZIA**

## **ELKARTU DIRA**

- Alde batetik, Maria Arretxe Agirre, adinez nagusia, NAN zenbakia 29156229A duena, Ordizian helbidea izan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro orokorrean ASG/19488/2015 zenbakiarekin erregistraturik dagoen ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DE UN NUEVO MODELO ENERGÉTICO “APOYO A GOIENER” (GOIENER ELKARTEA) elkartearen ordezkaria.
- Bestetik, ....., adinez nagusia, NAN zenbakia ..... izan eta helbidea ..... -(e)n duena.

Eta agiri honen bitartez, Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8.3 artikuluari jarraiki,

Akordio/konpromiso hau sinatu dute:

## **BOLUNTARIOTZAKO KONPROMISOA**

..... jaunak/andreak bere burua eskaintzen du konpromisoa hartzeko GOIENER ELKARTEAREN markoan, elkartearen alde aritzeko borondatezko lankidetzara askean eta irabazi asmorik gabe, elkarteak berak garatutako zenbait programatan eta jardueratan parte hartuz. Jarduerok ez dute boluntarioaren zeregin nagusiak nahiz bizitza pribatua oztopatuko.

Energia-eredu berri baten aldeko sustatze eta zabalpena helburu nagusia izanik, GOIENER ELKARTEAREN, asmo nagusiak hauek dira:

1. Energia berriztagarrien kontsumo arduratsua sustatu (kontsumoa txikiagoa eta eraginkorragoa izan dadin).
2. Iturburu berriztagarriko tokian tokiko egitasmoak ezarriz, energia produkzioaren deszentralizatzea sustatu.
3. Gizarteari formazioa eta informazioa eskainiz, energiaren iraunkortasunaren aldeko kontzientziazioa zabaltzen lagundu.
4. Energia-eredua aldatzeko gizartearen parte-hartzean eragiten lagundu.
5. Iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena sustatu,

GOIENER ELKARTEAK garatuko dituen **jardueretan** borondatezko elkarlana onartzen du:

1. Helburuetan aipatutako gaien inguruko azterketak garatu.
2. Gai horiei buruzko Proiektuak Ebaluatu, Garatu eta Gauzatu.
3. Aholkularitza Teknikoa eman.

4. Formakuntza jarduerak sustatu.
5. Zabalkunde, Sentsibilizazio eta abarreko jardueretan parte hartu eta hedatu.
6. Argitalpenak.
7. Foro, ekitaldi, ikastaro, jardunaldi eta eztabaidak antolatu.
8. Internet bidezko jardueretan aritu, sare-sozialak, web-orriak eta abarrekoak erabiliz.
9. Kanpo Harremanak eta kolaborazioak.
10. Boluntariotza sustatu.
11. Eredu energetiko berri baten alde egiteko, garapenerako heziketa eta lankidetzak ekintzak, egitasmo eta programak burutu.
12. Jarduera nagusiaren mendeko eginkizunak edo zeregin lagungarriak bete.

Eginkizun horien artean bereziki parte hartuko du hurrengo taldeetan:

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

GOIENER ELKARTEAK berariaz adierazten du aipaturiko eginkizun horiek ez dutela lanpostu egonkorrik ordezkatzeko edo lanpostu horiek sortzearen kontra ez dagoela. Konpromisoa hartzen duen Boluntarioak berak elkarlan honek egungo edo etorkizuneko lan-eskubiderik ez duela sortzen badakiela adierazten du.

Alderdi biek bere egiten dute borondatezko ekintza hau fede onaren printzipioz gauzatuko dutela eta baita bere egin ere haien jokabidea gidatuko dituzten eskakizun etikoak, 17/1988 Euskadiko Autonomi Erkidegoko Boluntariotza legean jasotako filosofia eta oinarriari jarraiki, eta boluntariotzari dagokion gainontzeko ordenamendu juridiko aplikagarriari jarraiki.

## **PERTSONA BOLUNTARIOAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

GOIENER ELKARTEAK hurrengo eskubideak eta betebeharrak onartzen ditu bere pertsona boluntarioekiko:

### **PERTSONA BOLUNTARIOAREN ESKUBIDEAK**

- a) Erakundean aktiboki parte hartzea; erakundeari buruzko informazioa jasotzea, bereziki, helburuei, antolaketa-egiturari eta funtzionamenduari buruzkoa, eta entitatearen barruan partaidetza-organoak sortzea eta horietan parte hartzea.
- b) Erakundearen egitasmo eta proiektuak diseinatzen, egiten, burutzen eta ebaluatzen laguntzea, baldin eta horietan parte hartzen badu, eta boluntario den aldetik eragiten dioten erakundeko hainbat alderdiri buruzko iritzia ematea.
- c) Boluntario gisa egiten duen lanak eskatzen duen teknika-, giza- eta prestakuntza-laguntza jasotzea eta bere ezaugarriei ondoen egokitzen zaizkion jardueri buruzko orientabideak izatea.
- d) Boluntario gisa egiten duen lanagatik beste norbaitek jaso ditzakeen kalte-galerak estaliko dituen aseguru-poliza bat izatea.
- e) Tratu diskriminatzailezik ez jasotzea. Aitzitik, tratua zuzena izango da eta bere askatasuna, duintasuna, intimitatea eta sinesmenak errespetatuko dira.
- f) Jarduerak segurtasun eta higieneko baldintza egokietan betetzea, jarduera beraren izaera eta ezaugarrien arabera.
- g) Gizarteari eman dion laguntza aitortzea eta errespetatzea.
- h) Boluntariotza askatasunez uztea, horren berri eman ondoren.
- i) Bere boluntariotza jarduerak ekarri dizkion gastuengatik ekonomi-ordaina jasotzea.
- j) Emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen ziurtagiria jasotzea.

### **PERTSONA BOLUNTARIOAREN BETEBEHARRAK**

- a) Bere aukeren eta borondatearen barruan, erakundeari aktiboki lagundu eta horretan parte hartu eta lan egin, baita erakundeko partaide guztiekin ere, bai profesionalekin bai boluntarioekin.
- b) Bete Elkartearekin hartutako konpromisoak, elkarteak indarrean dituen helburuak eta arauak errespetatuta.
- c) Arduraz betetzen saiatu Elkarteak ezartzen dizkion betebeharrak, elkarteko arduradunek ezarritako jarraibideei jarraiki.
- d) Parte hartu elkarteak aurreikusitako formazio jardueretan eta ematen diren zerbitzuen kalitatea mantentzeko beharrezkoak diren jardueretan.

- e) Gorde borondatezko jardueran jasotako eta ezagututako informazioaren konfidentzialtasuna.
- f) Errespetatu egiten duen jarduera zuzendutako pertsonen edo pertsona taldeen eskubideak.
- g) Zaindu bere eskura jarritako baliabide materialak.
- h) Zaindu ezarritako segurtasun eta higiene neurriak.

## **HARREMANAREN IRAUPENA, PROBALDIA ETA KONTRATUA ETETEKO ZIOAK**

Borondatezko lankidetzaren erlazioa hau konpromisoa sinatu bezain pronto hasiko da eta denboran mugagabea izango da.

Lankidetzaren erlazioa hau eten egingo da bi aldeetako alde bakarrak edo biek hartutako konpromisoari muzin eginez gero, edo alde batek, alde aurretik abisua emanda, libreki hala erabakita.

.....-(e)n. .... )e)ko .....aren ..... -(e)an

Sinadura eta zigilua



Goiener Elkartea

Pertsona boluntarioa

### **Pribatutasun politika**

OHARRA. Zuk emandako datuak Goiener Elkartearen jabetzako fitxategi batean gordeko ditugu. Fitxategi hori boluntarioekin eta boluntario izan nahi duten pertsonekin harremanak kudeatzeko sortutakoa da. Halaber, Google eta Dropbox Goiener Elkartearen zerbitzu informatikoen hornitzaileak direnez gero, onartzen duzu Google-ren eta Dropbox-en memoria sistemetara datuen nazioarteko transferentzia. Edozein unetan erabil ditzakezu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, tratamendua mugatzeko, ezabatze eta baliogabetzeko dituzun eskubideak, Goiener Elkartearen bulegoetara joaz (Mallutz Industrialdea, 18. pabiloia, Ordizia 20240 - Gipuzkoa) edo [info@goienerekartea.org](mailto:info@goienerekartea.org) helbide elektronikora idatziz.